

ILARGI ZAHARRA

Dagorret Mailen, 12 urte

Itsasu

Mundua sortu zenean, ilargi bakarra baitzen,
Zerua argitzekotan, izarrak zituen sortzen.
Izar iheskor, egonkor ziren zeruan agertzen.
Lur gaina apaintzeko loreak zituen landatzen:
Lili gorri, xuri, beltz, urdinak ziren irekitzen.
Ilargi zaharrak uda berri ona zuen deitzen.

Uda heltzean ilargiak jarraitu zion lanari,
Animale ospetsuak eskaini zizkion oihanari,
Bertsoak oparitzat eman txori bihurriari;
Usoa itxuraldatu zuen elurra bezain xuri,
Koloreak jantzarazi zizkion ortzadarrari,
Gauaz, ipuinak kondatzen zizkion izar maiteari.

Haizea ufatzen hasi zenean, Afrikara buruz
joana,

Belar handi eta horien artean entzun zuen
oihartzuna:

Adarzabal hil baten ondoan, familiarekin zen
lehoina.

Handik hurbil elefante saldo batek zuen urik
goxoena.

Airetan sai beltzak ikusi zuen korrika ari zen lapina.

Hostoak lurrean, euri azkarrenak: hor zen nonbait udazkena!

Baina hotza etorri zen, elurra mundu guziaz estaltzeko.

Ilargi zaharrak eguzki-paltoa jantzi zuen berotzeko.

Ipar polora joana zen piztia xurien begiratzeko. Hartz-kume batzuk arrain bat harrapatzen ari, jostatzeko.

Pinguino gazte batzuk ernatzen ziren ur hotzean bainatzeko.

Zeru hartako izarrak laranjak ziren hango hura edertzeko.

Bidaiaren bukaeran izarrik ederrena sorrarazi zuen.

Izar ederraren ezkata guziak urrez estaliak ziren: Bakotxak ilargiaren biziaren momentu bat kontaktzen zien.

Bere begien laranja itsas izarrarena bezain ederra zen,

Haren bihotzak munduko abere eta loreak zituen manatzen,

Bere ezpainen ilargi zaharraren ipuinak zituzten kontaktzen.